

# GUaiXE.net



**San Sebastianak Lakuntzan eta Olatzagutian**



Ospakizunak >> 14

**Dorraoko, Bakaikuko eta Urdaingo San Anton kofradiak bihar elkartuko dira. Iturmendiko san antondarrak, berriz, igandean**



Sakanerria >> 9



**Kontratazio finkoa, gutxi baina Nafarroako batz bestekoaren gaineratik >>5**

## Plaza zaharreko azken danborrada

Lakuntzako plaza berritzeko lanak otsaila erdialdean edo martxoan hasiko dira. Igande gauerdikoa izanen da plaza zaharberitu aurretik eginen den azken danborrada >>9



**Hiriberriko gelak egiteko lanak hasi dira >>7**



**Inasak 819.449,62 € zor dizkio gobernuari >>8**



**Pilota finalak bihar >>13**



**Nanoipuin lehiaketa deia >>15**



**Ekintzaileen aldeko sarea >>3**

**BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK**

**“ Enpresa, ekintzaile eta ikerlari berritzaileen esperientzietatik ikasten dugu. Nerea Txintxurreta, Mekanikako Ingeniaritza, 3. maila. ”**

**PREST**  
**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**  
GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

**ATE IREKIAK**

**GOIERRIKO CAMPUSA INGENIARITZA**

**URTARRILAK 23**  
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

**MARTXOAK 15**  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI**  
**902 110 436**  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Maidar Gallego Guerrero**  
ZORIONAK preziosa!! 6 urte dagoeneko!! Izugarri maite zaitugu. Etxeko guztien partez.

**Jose Javier Agirrebengoa**  
Izugarrri pozten gara zu ongi egoteaz. ZORIONAK eta urte askotarako!! La banda.

**Itoitz ZORIONAK** Itoitz!! 8 urte dagoeneko. Ongi pasa laztana!! Maite zaitugu!! Etxekoak.

**Garbiñe Arregui Sainz**  
Urtarrilak 18. ZORIONAK xagu!!

**Juana Mari eta Hector**  
ZORIONAK eta oso egun ederra pasa deza-zuela!! Muxu asko, Marripi.

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

## ilbeltzak

# 17-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net



kultur gunean.

**Plan en Las Vegas.** Ilbeltzaren 17an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 19an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Rodencia y el diente de la princesa.** Ilbeltzaren 17an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Mendi irteera

**Gares-Lizarra.** Ilbeltzaren 19an, igandean, 8:00etan Irurtzundik. Iratxo mendi taldea.

### Txirindula irteerak

**Irañetako iturburu.** Ilbeltzaren 19an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 55 km.  
**Burundako mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**20 urte elkarrekin jolasean.** Ilbeltzaren 19ra arte Altsasuko lortia kultur gunean. Txantxari ludoteka.

**Oleos.** Otsailaren 14ra arte Urdiaingo Kaluxa tabernan. Patricia Paats.

### Literatura

**La nevada del cuco.** Ilbeltzaren 17an, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko

liburutegian. **Bianca Busquetsen** lanaz tertulia.

### Bestelakoak

**Scalextrix erraldoia.** Ilbeltzaren 17an, ostiralean, 18:30etik 20:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

**Mugimendu tailerra.** Ilbeltzaren 23an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Gure etxea eraikinean. Sormen hezkuntzan oinarritua. **Doakoa.**

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutakoen Plataforma.** Ilbeltzaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Ilbeltzaren 17an, ostiralean, 20:00etan Irurtzango, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Ilbeltzaren 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Ilbeltzaren 20an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

### Musika

**Rondalla Alaitasuna eta Trasteando.** Ilbeltzaren 18an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Sökolé.** Ilbeltzaren 18an, larunbatean, 23:30ean Olatzagutiko Clinkerren.

Doan.

### Dokumentala

**Romero artzapezpikua: Eliza eta herri mugimenduak El Salvadorreko gatazkan.** Ilbeltzaren 23an, ostegunean, 19:30ean Etxarri

Aranazko Karriestu elkartean.  
Ondoren Peio Goiatxe hizlari.

### Zinema

**La herida.** Ilbeltzaren 17an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM  
**beleixe** online  
www.guaixe.net

Piztu irratia!

## ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:  
albisteak, kirolak...

Esataria: Eneida

## SAKANA

# Europako ordainketa eta kobratze sistema berrian janzten

Otsailetik aurrera Europako 33 herrialdeetan eurotan ordaintzeko moduaren harmonizazioa egingen da. Transferentzia, helbideratutako zordunketa eta ordainketa-txartela bidezko ordainketei eragiten die

Sakana guztitik etorritako enpresetako ordezkari, autonomo eta banako, 200 bat, joan ziren atzo Sakanako Enpresarien Elkarteak Eurotan Ordaintzeko Gune Bakarraz antolatu zuen jardunaldira (ingelesez SEPA, Single Euro Payments Area). Euro monetaren ezarpenaren pareko aldaketa zela nabarmendu zuten. 2002tik Euroguneko herrialdeetan berarekin ordaindu daiteke. Baina eskudirutan ez diren ordainketetarako herrialde bakoitzak bere araudia zuten. Otsailetik aurrera Euroguneko 28 herrialdeak, Islandiak, Liechtensteinek, Monakok, Norvegiak eta Suitzak araudi bera izanen dute. Horrek, moneta baka-rraren bateratzeari onura guztiak ateratzeko modua emanen duela adierazi zuten aurkezpenean.

Otsailetik aurrera gune horretako herritar, enpresa eta bestelako eragile ekonomikoek eurotan ordaindu eta kobratu ahal izanen dute; eta guztiek oinarritzeko baldintza, eskubide eta betebeharrak berberak izanen dituzte. Horri



Sistema berriak Sakanan interesa piztu zuen, horren adierazle da lortia ia beteta ikustea.

esker, “merkatu bakoitzaren barruan jarduteko erraztasun, azkartasun eta segurtasun berdinak izanen dira”.

### Ekarriko dituen aldaketak

Orain arte kontu korronteko 20 zenbakiekin identifikatzen ziren ordainketa eta kobratetako Otsailetik aurrera IBANa (International Bank Account Number; 24 zenbaki) eta BICa (Business Identifier Code, 11 zenbaki) izanen dira. Kutzek eta bankuek aurreratutako dituzte kontu korrontez zenbakiak automatikoki IBAN eta BIC for-

matura bihurtzeko lanak.

Orain arte bezala ordainketa edo kobratzea egiterakoan kontzeptu bat jartzen segitu behar da. Baina transferentzien kasuan 72 karakteretan azalpena eman behar 140tan emateko aukera izanen da. Zuzeneko Zorrek-Zordunketak produktuetan, ordea, kontzeptua 640 karakteretik 140ra murriztu da. Horrek mugatu egiten du zordunari bidaltzen ahal zaion informazioa, eta zordun batzuek zorraren datuen jakinarazpena fakturen bidez edo bestelako bideetatik

egin beharko dute.

Helbideratze Aginduak deitzen ditugunek otsailetik aurrera Zuzeneko Zorren Mandatuak izena hartuko dute. Hurrengo hilabetetik aurrera informazioa trukatzeko sistema berriarekin, aurkezten den Zuzeneko Zor bakoitzarekin erregistro bat ere bidaliko da, Mandatuaren datuak jasoko dituen (informazio-multzoa). Itzultzen inguruko guztia arautu dute ere, epeak zehaztuz. Azkenik, helbideratze-kontua aldatzeko nahikoa izanen da igorleari jakinarazpen formal bat bidaltzea.



## Garalur, Ekintzaileari Laguntzeko Nafar Sarean

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Nafarroako 2013-2015 Ekintzaile-tza Planaren barrenean bultzatu duen Ekintzaileari Laguntzeko Nafar Sarea aurkeztu zen atzo.

Sare horren helburua da “ekintzaileei informazioa, aholkularitza eta orientazioa ematea modu egoki, eraginkor eta homogeneoan, enpresa berrien eta enpleguaren sorrera sustatzeko; hori dena, bere agenteen jardura koordinatuen bitartez”.

Aurkezpenean gobernuko ordezkariak adierazi zuten, sarea “Nafarroan ekintzailetasunaren sustapenean ari diren erakunde publiko eta pribatuaren zerbitzuen eskaintza hobe koordinatuz”.

tzeko tresna bat da”. Sarea Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Sodena-CEINEk, CENek, UGTk, CCOOK osatzen dute, baita eskualde garapen erakundeek Cederna Garalur, Zona Media partzuergoa, TEDER eta EDER partzuergoa.



Sarearen sustatzaileen familia argazkia.

**CARNICERIA I. ARREGUI**  
HARATEGI ETA URDAITEGIA

tel. 948 576 067

**Ongi pasa festetan!**

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea:

- tripota
- tripotxa
- mihia
- kalluak
- saltxitxak
- frituak

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

[www.navarraemprende.com](http://www.navarraemprende.com)

Atari horretan biltzen da Ekintzaileari Laguntzeko nafar sarearen eskaintza; bertan ikus daitezke Sareak ekintzaile eta enpresa guztien eta, oro har, gizartearen eskura jartzen dituen zerbitzuak. Azken finean, Nafarroako ekintzaile eta autonomoendako eduki jakin-garri, praktikoa eta interesgarria eskaintza.

**Non erabili**

**ARKANGOA TABERNA**

**ALTSASU**

Postrea edo kopa doakoa.

**GIXANE ESTETIZISTA**

**ALTSASU**

Betileen permanentea eta tintarekin, atzazkalak zure erara margotu doan.

**PINPILINPAUSA**

**ALTSASU**

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

**TEXARTU**

**IRUNEA**

Eskaintza kanpainaren arabera.

**CLINKER**

**OLAZTI**

Menuarekin kafea eta kopa doan.

**SORKUNDE HARATEGIA**

**ALTSASU**

50 €ko erosketetan etxeko produktoa doan

**BERRIA EGUNKARIA**

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

**IKER KIROLAK**

**ALTSASU**

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabilitzeko.

**URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA**

**ETXARRI ARANATZ**

% 20ko deskontua kontsultan.

**BASOMUTUR**

**ALTSASU**

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

**BILTOKI TABERNA**

**ALTSASU**

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

[www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)-en zerrenda osoa ikusgai



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

astekoa

## Urte berria-Lege berriak

Beste urte bat, denbora pasatzen da, eta denborarekin gauzak ere. 2014rako eskuindar gurutzaden legeberriak martxan jarriko dira Iberia zahar honetan: LOMCE delakoekin, hezkuntza sistema osoa hankaz gora jarriko dute; abortua delakoekin, emakumeak erabakitzeke eskubiderik gabe

geratuko dira eta Herritar Seguratasun Legeak kristorenak ekarriko du, hala dirudi.

Nora goaz? XIX. edo XV. mendera, edo ondo ulertzeko, Frantziako garai batera. Azken urte hauetan irabazi diren eskubideak aldatu behar lege berrien bidez "Trento"ko apezpikuak kontent

izateko. Eliza zerura, eta zerua eskuindarra, nahiz eta Frantziako argentinaren "progre" aipatu.

Zer da hau? Ni baikor nago 2014an, baina etorkizun hau kontuan hartuz, atzerriratzeko gogorekin nago. Faxistak eta faxistakoak ezin ditut eutsi. Krisi ekonomikoa eta politikoa loturik

daude gaur egun, baina krisi kulturala eta demokratikoa eragiten ari dira. Manifestaldiak, prentsaurrekoak... antolatzen dituztenak, kartzeletara. Lapurkeriekin eta gezurrekin boterea erabiltzen dutenak, berriz, "pitxi" modura (gogoratzeko "es el txulo que palpita..."), ondo

ikusia.

Bat- batean, Valentzian iruzurrak, denok "enpufatu", bere telebista itxi eta orain Fabra lehendakariak valentziera (katalana ez) gehiago eskatzen du TVEn. Hori falta zaigu, denok valentziera mintzatzea, erabiltzea eta dignitatea saltzea.

### hara zer dien

## Murritzketak emakumeen eskubideetan

2013ko abenduaren 20an Espainiako Ministroen Kontseiluak abortuaren legea aldatzeko aurreproiektua onartu zuen. Lege berriaren izenburua, hauex: Kontzebituaren Bizia eta Haurdunaren Eskubideak Babesteko Lege Organikoa. Izenburuari erreparatu badiogu, argi dago zein den legearen helburua: kontzebituak eta haurdunen eskubideak babestea. Beraz, emakumeen eskubideak lege honetatik at gelditzen dire-

la ondorioztatzea ez da zaila.

Gaur egun indarrean dagoen legearen arabera, haurdunaldia eteteko eskubidea dago inongo justifikaziorik gabe 14. aste bitartean. Hortik aurrera, baldintzatu dago. Hau da, legeak bildutako kasu eta epeetatik kanpo, delitua da haurdunaldia etetea, Zigor Kodean sartuta dago eta zigortua. Aurkeztutako aurreproiektuan aipatutako aukera hau desagertzen da, haurdunaldiaren bidera-

garritasunaren eta fetuaren malformazioarekin batera. Emakumearen osasun fisikoa edo psikikoa arriskuan egotea edo bortxaketa bat jasan izana dira haurdunaldia eteteko lege onartzen diren arrazoi bakarrak.

Honen arabera, alde batetik, fetuaren eskubideak emakumeen eskubideen gainetik jartzen dira. Honi helduta, esan beharra dago 2011ko datuen arabera, esku- ra dauden azken datu ofizialen

arabera, Espainiar Estatuan 118.359 emakumeke euren haurdunaldia eten zutela 14. aste baino lehen, egindako abortuen %90a. Lege berriak indarra hartzen duenean ez dute haurdunaldia eteteko aukerarik izanen, legearen babesarekin eta doan, behintzat. Akaso beste bideren bat bilatu beharko dute?

Bestetik, emakumeen borondatea ez da arrazoi nahikoa, are gehiago, emakumeen borondate-

tik kanpo datoz arrazoiak: bortxatua izanaren salaketa eta osasun arriskua ziurtatzen duten medikuen txostena. Medikuei esleitzen zaie erabakitzeke autoritatea.

Gauzak horrela, emakumeen erabakitzeke eskubidea da auzian dagoena. Hau da, emakumeok gure bizitzaren eta gure gorputzaren jabe izatean dago gakoa.

### Emakumeen bilgunea

### barrutik kanpora

## Elektrizitatea garestia ote?

Elektrizitatea ekoiztea eta garraiatzea garestia da nonbait, are gehiago ingurumenean duen kostea kontuan hartzen badugu. Horrek kontsumoaren gaineko hausnarketa sakona beharko luke, interes ekonomikoek eta gure erosotasunak behin eta berriz saihesten dutena. Hori dela eta, bertze tokietan kokatzen da eztabaida, hala nola, prezioa, enpresen irabaziak eta gobernuaren erabakietan.

Aurten %2,3 igo da elektrizitatearen prezioa, behin behinean, batez ere Gobernuak arautzen duen atala garestituta. Behin

behineko igoera da Gobernuak energiaren prezioa finkatzen duen enkantea baliogabetu zuelako, enpresek manipulatu zutela iritzita. Gero gerokoa, izan ere fakturaren prezioaren %55 Gobernuak erabakitzen du eta enpresek %45. Afera argitu arte zain egon beharko dugu, baina poliki garestituko dela segurutzat jotzen dute.

Gobernuaren erabakien garrantzia edo gure kontsumoari buruzko hausnarketaren beharra atzendu gabe, prezioari hainbat aipamen egitea egoki deritzot. Estatuko bezero gehienok "Tari-

fa de Último Recurso (TUR)" delakoa dugu kontratatua, Gobernuaren kontrolpean dagoena, nahiz eta enpresek ere bere prezioa baldintzatzen duten. Tarifa hau liberalizazioaren aurreko tarifa eta egungo tarifa libreen artean kokatzen da, merkeena izan da eta kontsumitzaileen eskubideak hobeki babestu ditu.

Enpresek eta Gobernuak interes handia erakutsi dute araututako tarifa desagerrarazi eta tarifa libreak zabaltzeko, enpresen arteko lehia ona izanen dela argudiatuta. Gure iritziz, gehiago irabazteko egiten dute, gure kalte-

rako. Hara hor egungo tarifa libreak, aukeratzen dituenak gehiago ordaintzen baitu.

Kontsumitzaileen elkarteetatik liberalizazioak ez duela elektrizitatea merketu salatu dugu. Enpresen iruzurrak ere salatu ditugu eta tarifa libreekin faktura ikaragarri garestitzen dela ere bai, zenbait kasutan %11 baino gehiago. Jasotzen ditugun erreklamazioak ikusita gainera garbiki erraten ahal dugu aseguruak eta mantenu zerbitzuek, hau da, deskontuak aplikatzeko kontratatzen direnek helburua nekez betetzen dutela.

Gogor jokatzen ari dira enpresak beren asmoa gauzatzeko: TUR kontratatu ahal izateko gehieneko indar-muga, egun 10 kilobatio dena, 3-5 kilobatioa jaitea eta TURaren prezioa garestitzea proposatu dute, TUR kontratatzeke jendeari trabak patzen dizkio- te, etxez etxe nahiz telefonoz sutuki saiatzeko tarifa libreako kontratuak egiten...

Definizioz unibertsal den zerbitzu publikoa nork kudeatuko eta garaile nor aterako den dago jokoan, dudarik gabe.

### Iratxe

## Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano  
**ZUZENTZAILA:** Oihana Zubeldia  
**ARGITARATZAILA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

### LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
 s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hezkuntza Politikako Salburuzordeta

**HIZTEGITXOAK.EU WEBGUNEAREN MAR-TXAN:** Euskaratik beste 35 hizkuntzetara-ko noranzkoan, eta alderantziz, oinarritzko hiztegiak lortzeko aukera eskaintzen du.

Euskarara eta beste hizkuntzetara hurbiltzeko, harremanetarako, elkar ezagutzarako, elkarren aitortzarako balioa du.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Kontratazio finkoa, gutxi baina Nafarroako batz bestekoaren gainetik



Aldamio artean kisugilea.

Kontratuak 2013an	Kontratuak hilean		Mugagabeko kontratu kopurua	
	Sakana	Nafarroa	Sakana	Nafarroa
Ilbeltza	386	18.940	29	1.212
Otsaila	278	15.738	24	1.039
Martxoa	289	15.980	17	1.036
Apirila	378	20.404	22	978
Maiatza	394	20.485	35	1.116
Garagarria	480	21.102	21	918
Garila	525	26.647	21	977
Agorrila	434	21.320	6	811
Iraila	592	27.510	29	1.256
Lastaila	492	26.051	23	1.293
Azaroa	392	20.189	49	1.031
Abendua	401	21.582	9	789
<b>Guztira</b>	<b>5.041</b>	<b>255.948</b>	<b>285</b>	<b>12.456</b>

Iruñeko zabalguneko enplegu bulegora joaten diren arakildar eta irurtzundarren datuen faltan, joan den urtean Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Altsasun duen bulegoan 5.041 kontratu sinatu ziren. Kopuru hori 2013an zerbitzu horren bidez Nafarroa guztian sinatutako kontratuen %1,96 da.

Altsasuko bulegoaren bidez sinatutako kontratu guztien %5,65 besterik ez dira mugagabeak izan. Sakana Nafarroako batz bestekoaren gainetik %0,8 dago, joan den urtean sinatutako kontratuen %4,86 baitzen mugagabea. Nafarroan sinatutako kontratu mugagabeen %2,28 Altsasuko bulegoaren bidez adostu ziren.

# Zabor tasen hobariak eskatzeko epea zabalik

**Urtean egin daitezke eskaerak Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako egoitzan. Eskatzen den unetik ezarriko da hobaria**

Sakanako Mankomunitateak hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta aprobetxatu edo desegiteko tasak arautzen dituen ordenantza eguneratu eta hobariak zehaztu ditu. Araudian jaso duenez, lau kasutan emanen ditu hobariak Mank-ek. Alde batetik, Gizarte Segurantzaren edo Nafarroako Mendekotasun Agentziaren onuradunek %100eko hobaria izanen

dute. Horretarako, hori bai, Efektu Anitzetarako Errenta-Adierazle Publikoa (EAEAP) (8.838,34 euro urteko, 631,31 hileko) edo hori bider 1,3 eginez ateratzen den kopurua gaunditzen ez badu.

Mank-en hobari hori bera izanen dute eskatzaileek ezkontide edo gisa bereko bizikidea dutenean eta bien diru sarrerak 1,35 aldiz EAEAPa gaunditzen ez duenean. %100eko hobaria lortuko dute ezkontidea ez den beste familia-zama duten eskatzaileek ere, menpeko lagun bako-

tzeko EAEAPa 0,23 handituko da.

## Gehiago

Mank-i frogatzen badiote etxebizitzan ur eta argi zerbitzurik ez dutela, jabeek %70eko hobaria izateko eskubidea dute. Etxe bat bota eta berria jasotzeko baimena lortu dutenek ere ez dute zabor tasarik ordaindu behar, behar bezala frogatzen badute. Azkenik, etxebizitzatik 500 metro baino gehiagora edukiontzia dutenek ere %100eko hobaria izanen dute.



Auzo-konpostagailuak Iturmendin.

# Sakandar ugari konponbide eske



Giza eskubideak, konponbidea, bakea leloarekin Euskal Herrian egin den mobilizazio jendetsuena hartu zuen larunbatean Bilbok. EAJk, Sortuk, EAK, Aralarrek, Alenatibak, Geroa Baik, ELAk, eta LABek deitu zuten manifestazioa. Isila izan behar zuen mobi-

lizazioan presoan etxeratzearen aldeko oihuak entzun ziren. Aldi berean, sakabanaketa bukatzeko eta konponbidearen aldeko urratsak aldarrikatzeko Tantzaz Tanta ekimenak erabilitako tanten irudiak ere ikusi ziren.

Sakanatik makina bat jende

joanzen. Asko euren ibilgailuetan joan ziren eta beste asko ibarretik abiatutako 13 autobusetan (Arakil, Irurtzun eta Uharte 2; Lakuntza 1; Arbizu 1; Etxarri Aranatz 1; Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain 2; Altsasu 3; Olatzagutia eta Ziorria 1 eta Iruña eta Sakanako 1).

CITROËN nahigo du TOTAL  
KONTSUMO MIXTOA (100KM/L) CO<sub>2</sub> EMISIOA (KM/G): CITROËN C4 PICASSO: 3,8-6,3/98-145

www.citroen.es

## MUNDU GUZTIA ZURE AUTOAN

### CITROËN C4 PICASSO BERRIA

ESPAINIAR EGINDA

## TECHNOSPACEA

CITROËN

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

## SAKANA

# Bidesaririk ez Gipuzkoan

Gipuzkoako Batzar Nagusietan herrialdeko errepidesare nagusian bidesaria jartzeko Bilduk aurkeztutako proposamenari osoko zuzen-keta bana aurkeztu zioten EA, Jk, PSEk eta PPk, eta foru araua atzera bota zuten herenegun. Beraz, momentuz, epe laburrean Gipuzkoako errepidesare nagusian ez da bidesaririk ordaindu behar.

## Nafarroako Gobernua kontra

Hesirik gabeko arkupe sistema ezarri nahi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Haietako zazpi arku Iparraldeko Autobian (A-1) eta hiru Leitzarango Autobian (A-15) jarri nahi zituen. Hasiera batean ibilgailu guztiei kobratzeko asmoa zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, baina, azkenik, ibilgailu astunei



Trafikoa Leitzarango Autobian.

kobratzeko asmoa azaldu zuen. Egitasmoaren berri jakin bezain laster, Juan Luis Sanchez de Muniainek, Nafarroako Gober-

nuko bozeramaileak, bidesariekin nafarrak kaltetzen zitzutela adierazi zuen. Bi administrazioen aldeko bilera ere egin zuten.

## Altsasu

## Ibilgailuek mustu dute Zelandiko aparkalekua

Zelandi eskolaren eta Constantino Salinas osasun etxearen artean udalak egin duen aparkalekua erabilgarri dago dagoeneko. 1.490 metro karratuko azaleran 47 ibilgailurendako tokia dago. Coyser enpresak aurreko astean egin zituen lanengatik 18.000 euro jaso ditu.



Aparkalekua erabilgarri dago.

## Arakil

## Udalak babesa azaldu dio osasun zerbitzu publikoaren aldeko ekimen legegileari

Kalitatezko osasun-laguntza bermatzea eta Nafarroako landa-eremuetako herritarrek dituzten eskubideak eta zerbitzuak arautzea. Horixe eskatzen dute Zangozako Merinaldeko udalak. Horretarako, legegari segituz, udal ekimen legegilea abiarazi dute eta Arakilgo Udalak, aho batez, bat egin du eskaera horrekin. Nafarroako 160 udalak, tartean sakan-darrek, bat egin dute Zangozako Merinaldeko udalen ekimenarekin. Haiek herenegun aurkeztu zuten proposamena Nafarroako Parlamentuan.

## Olatzagutia



Jendea kalean.

## Ongi ari gara?

Adimen emozionalaren bidezko heziketa lantzeko gurasoendako tailerra antolatu dute Burunda mendaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Akelarre Ludotekak. Gurasoek haurren heziketan izan ditzaketen zalantzak eta beldurrak argitu nahi ditu ikastaroak. Horretarako egoera zehatzak, ardurak, gurasoak kezkatzen dituzten gauzez eta abarrez hitz egingen da tailerrean. Interesatuak izena eman behar dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren egoitzan (948 467 662) hilaren 27a baino lehen.

## BOST SAIO

Ilbeltzaren 31n, otsailaren 28an, martxoaren 28an, apirilaren 25ean eta maiatzaren 23an (ostiralak). 9:00etan kafea hartzera bilduko dira ludoteketan. Tailerra 9:30etik 11:00etara izanen da.

## SAKANA

## Muslariak Euskal Herriko txapelketari begira

Euskal Herriko Mus Txapelketako Arbizuko eta Altsasuko kanporaketak bihar jokatu dira. Mus Federazioak antolatutako Arbizuko neurketak Karrika tabernan jokatu dira 16:00etatik aurrera. Altsasukoak, berriz, Zubiondo elkartearen hileren 25erako dago iragarria, 16:00etan Pikuxarren. Bestalde, larunbatean Irañetako kanporaketa jokatu zen lau bikoteraren artean. Manu Lizarragak eta Floren Berazak lortu zuten lehiaketan aurrera egitea finalean Pedro eta Juan A. Berazari irabazi ondoren.

## Etxarri Aranatz

# Bilduk eta NaBaik PPko zinegotziaren jarrera salatu dute

**Herriko presoekiko eta haien familiekiko eta gertukoekiko elkartasuna adieraztea helburu duten ekimenak kriminalizatu dituela uste dute, horretarako faltsukeriak eta manipulazioa erabiliz**

Urtero moduan, Eguberrietan, euskal presoaren aldeko diru bilketa egin zen Etxarri Aranatz. Jasotako dirua presoaren senideek urruneko espetxeetara egin beharreko bidaietako gastuak arintzeko erabiltzen da.

Horren berri izan zuenean, PPko zinegotzi Juan Antonio Extremerak "gogor gaitzetsi zuen ETaren inguruak herritarrei eta dendarietara egiten dien estortsioa". Extremeraren iritziz, etxeetan "talde terroristako presoendako dirua eskatzeko" banatutako gutunekin "bizilagunak beldurtuta eta bortxatuta sentitzen dira edo senti daitezke". Gaineratu zuenez, "herriaren historiarekin, halakoei beldurra sortzen dute laukorik eman nahi ez dutenen artean".



Udal bilkura eta herritarrek hari adi. ARTXIBOIA

Horregatik, PPkoak azken bilkuran kondena mozioa aurkeztu zuen, "etxarriarrak beldurtu, herriaren irudia zikindu eta enpresek eskualdean egin ditzaketen inbertsio berriak urruntzen dituelako".

## Koalizioak batera

Hari erantzunez Etxarriko Bildu

eta NaBaiko taldeek mozio bateratu bat adostu zuten. Bi koalizioek nabarmendu zuten, "PPk aurkeztutako mozioa guztiz faltsua den oinarritik abiatu da, eta faltsukeria horretatik gezur handi bat eraiki du, presoaren sakabanaketaren ondorioak pairatzen dituzten familiak eta gertukoak kriminalizatzen dituena". Aldi

berean, azaldu zioten herri ekimenaren asmoa zela "sakabanaketak beren sorterritik ehunka kilometrotara preso daudenen familia-koei eta gertuko kalte ekonomikoak eragiten diela kontuan izanik, seme-alabak, neba-arrebak... bisitatzeko milaka kilometro egin behar horrek dakarren gastu itzela arintzea, neurri txiki batean bada ere". Bildutik eta NaBaitik PPri "gatazkari irtenbidea bilatzeko" inplikatzeko eta "konpromisoa" eskatu zioten.

Aldi berean, popularrari nabarmendu nahia leporatu zioten: "PPk ez du parte hartzen ez udal jardueran, ez Etxarri Aranatzko herritarren eguneroko gaien kudeaketan. Aldiz, egoera puntual batzuk baliatzen ditu protagonismoa bilatzeko eta nabarmen gelditzeko". Hainbat hedabideren laguntzaz, PPk "Sakanako udalen jarduerak kriminalizatzea eta hura baldintzatzea helburu duen estrategia" garatu duela salatu zuten.

## El Salvadorko FMLNri elkartasuna adierazteko ekitaldia ostegunean

Otsailaren 2an presidentea aukeratzeko hauteskundeak egingen dira El Salvadorren. Eskuinak 20 urte gobernuan eman ondoren, azken bostetan Funes-FMLN bikoa izan da boterean. Hauteskunde prozesuan eskuina zatitua aurkeztuko da eta FMLNek lehen itzulian hauteskundeak irabazteko aukera du, "Aldaketa Gobernuaren jarraipena bermatuz; pro-

grama sozial arrakastatsuei jarraipena eman eta eraldaketa politikan sakontzen joan ahal izateko".

Horregatik, Euskal Herriko hainbat sektore politiko eta sozialek, hauteskundeetatik harago, elkartasun osoa adierazi diote FMLNri. Bi herrialdeen arteko adiskidetasun eta elkartasun konpromisoa nabarmendu dute.



Sakanak Cinquerarekin du harremana.

## Dokumentala

**Romero artzapezpikua: Eliza eta herri mugimenduak El Salvadorreko gatazkan.** Ilbeltzaren 23an, ostegunean, 19:30ean Etxarri Aranatzko Karriestu elkartearen ikusteko aukera izanen da. Ondoren Peio Goiatxe mediku internazionalista nafarrak hitz egingen du.

FMLNren aldeko agiri bat zabaldu dute norbanako eta erakundeek babesa adierazi diezaioten. Aldi berean, hilaren 26an Altsasun FMLNren alde El Salvadorren lagunek antolatu duten ekitaldian parte hartzera deitu dute.

## » Hiriberri

# Hasi dira erabilera anitzeko geletako lanak

Hiriberriko kontzeju-etxeen lehen solairuan erabilera anitzeko gelak (txikia eta handia) egiteko lanak abendu akaberan abiatu ziren eta bost hilabeteren buruan despedituak egotea espero da. Herritar guztien irisgarritasuna bermatzeko igogailu jarriko da. Construcciones Arleizabe enpresari dala horiek egiten. Aurretik, hiriberriarrek auzolanean eta udaleko langileek hainbat lan egin dituzte.

## Hitzarmena

Arakilgo Udalak kontzejuen eta arakildarren arteko harremana estutuko duen espazioen sare bat sortzeko asmoa du, horrela eskaintzen dituen zerbitzuak hobetu

ditzakeelako. Hori kontuan izanda, Udalak Hiriberriko Kontzejuarekin hitzarmena sinatu zuen. 20 urteko indarraldia du akordioak. Udalak emandako diru-laguntzaren truke kontzejuak gelaren erabilera dohainik utziko dio, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak eta bestelakoak antolatuz. Bi erakundeek adostu dutenez gelaren erabilera koordinatuko dute, baten eta bestearen programazioak elkar ez zapaltzeko.

Hitzartutakoaren arabera, eginen den jarduerak garbiketa egitea eskatzen duenetan udalaren ardura izanen da hura egitea. Mantenua eta bestelako kostuen (argindarra, berogailua...) ardu-

## 134.059 euroko inbertsioa

Nafarroako Gobernuaren Lau urteko Tokiko Azpiegitura Planetik 65.160 euroko diru-laguntza jaso dute (52.000 euro inguru joan den urtean, gainontzekoa aurten). Arakilgo Udalak 50.000 euro jarriko ditu eta Hiriberriko Kontzejuak 18.899 euro.

ra kontzejuarena izanen da. Nahiz eta hori aretoa martxan jartzenean berraztertuko den. Azkenik, bi erakundeek igogailuaren mantenua erdibana eginen dute.

## Banaketa



**Behel solairua (231,24 m<sup>2</sup>):** ezkaratza (13,31 m<sup>2</sup>), komunak (16,30 m<sup>2</sup>), banatzailea (11,26 m<sup>2</sup>), biltegia (40,5 m<sup>2</sup>), squasha (76,25 m<sup>2</sup>), harrera gunea (15,50 m<sup>2</sup>), mediku kontsultategia (15,2 m<sup>2</sup>), kontzejuaren bilera gela (23,3 m<sup>2</sup>) eta artxiboa (7,75 m<sup>2</sup>).  
**Lehen solairua (209,19 m<sup>2</sup>):** banaketa (25,32 m<sup>2</sup>), erabilera anitzeko gela txikia (22,81 m<sup>2</sup>) eta erabilera anitzeko gela handia (61,06 m<sup>2</sup>).

## » Satrustegi

## Kontzejuak alokairuan eman nahi du irakaslearen etxea zena

Satrustegiko kontzeju-etxearen lehen solairuan dagoen bizitza alokatu nahi du kontzejuak. San Migel kalearen 25ean dagoen etxek 137,87 metro karratu ditu. Joan den urtean eraikinean hainbat lan egin ondoren atera du Satrustegiko kontzejuak etxebizitza enkantera; urte baterako, baina epea luzatu daiteke. Hileko 400 euroko errenta ordaintzea eskatzen du kontzejuak. Interesatuak hilaren 24ra arteko epea dute haien eskaintzak Arakilgo udaletxean aurkezteko. Informazio gehiago nahi duenak Jose Antonio Angulo Bachillerrekin jarri behar du harremanetan (concejodesatrustegi@gmail.com edo 609 422 268).



Satrustegiko kontzeju-etxea.

## » Hiriberri

## Kudeaketa Batzordea kontzejuan

Nafarroako Gobernuak Hiriberriko Kontzejuko Kudeaketa Batzordea izendatu du gaur. Bost pertsonak osatzen dute batzordea: Jose Luis Legarrak, Salvador Unanua, Gotzone Sain de Murietak, Doroteo Iturmendik eta Felix Unanua. Aurrena kontzejuburua da eta bigarrena idazkaria.

Azken udal hauteskundeetan Hiriberriko Kontzeju berritzeke ez zen hautagaitzarik aurkeztu. Aurreko kontzejuko kideek lanean jarraitu zuten. Lege aldataririk ez zela egin behar esan zieten Nafarroako Gobernutik, baina ondoren ikusi dute egokiagoa zela aldaketa egitea eta, horregatik, izendatu du gobernuak kudeaketa batzordea.

Aurreko legegintzaldian Felix



Hiriberriarrek kontzejuaren kilometroa korrikan.

Unanua izan zen kontzeju-burua, eta hala izan zen pasa den urteko negu akaberara arte. Orduan hartu zuen kargua Jose Luis Legarrak. Kudeaketa Batzordean dauden guztiak, idazkaria ezik, aurreko

legegintzaldian ere kontzejuan zeuden. Baina kontzeju bileretan ez daude bostak bakarrik, badute beste bost hiriberriarren babesa. Guztiek batera lantzen dituzte herriko gaiak.

## » Altsasu

## Scalextrix erraldoia hemen da

**Gaur, 18:30etik 20:00etara, Iortia kultur guneko erakusketa gelan**

Txantxari ludotekaren 20 urterreneko ospakizunek aurrera jarraitzen dute. Aurreko ostiralean makina bat haurrek Iortia kul-

tur gunean gozogintza tailer batean parte hartu bazuten, gaurkoan, auto txikiak ziztu bizian gidatzeko aukera izanen dute. Izan ere, ludotekak scalextrix erraldoia jarriko du Iortia kultur gune-

ko erakusketa gelan. Han bertan Txantxari ludotekaren ibilbidearen berri ematen duen argazki erakusketa eta birziklatutako objektuekin egindako jolasak daude ikusgai.



# Lakuntzako Ostaturia

eguneko menua      plater konbinatuak  
otorduak enkarguz      bokatak  
asteburuko menu berezia

HERRIKO PLAZA 14 LAKUNTZA TEL. 948 576 025  
lakuntzakoostatua@gmail.com

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**

**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**



**xapatero**  
**taberna**

**948 460 162**  
**Etxarri-Aranatz**

**BILTOKI**  
**TABERNA • JATETXEA**

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Astehenetik ostiralera  
**Eguneko menua**  
**8,25€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

## SAKANA

## Ibarreko kideak Nafarroako UGTren ezohiko biltzarra egitearen alde

Garagarrilean Nafarroako UGTk Juan Goien aukeratu zuen berriro idazkari nagusi kargurako, baina %47,39ko babesla besterik ez zuen jaso. UGTren zazpi federazioetatik sei eta sei eskualdeek, tartean Sakanak, "zuzendaritza sindikatuaren babes handia duen zuzendaritza berritu eta berrindartu baten beharra" dutela adierazi zuten asteartean.

Sakanako UGTko arduradun

David Medinak esan digunez, "arrazoi asko egon daitezke, baina Goien hautagaitzak ez zuen nahikoa babeslortu". Medinak azaldu digunez, "lan erreformak, murrizketak... Sakanan pentsatzen dugu bizi dugun egoeran, inoiz baino gehiago, sindikatu indartsu bat behar dugula. Konfiantza transmititzen duen sindikatu bat". Horregatik, "sindikatuak eskaintzen dituen tresnak erabilia UGTren

babesa duen beste pertsona bat aukeratzeko bidea zabaldu dugu".

### Epeak

Asteartean jakinarazi zuten bide hori abiatu zutela. Gauzak ongi martxoan Batzorde Erregionalak apribilerako ezohiko batzarra deitzea espero dute eta orduan zuzendaritza berria aukeratzea. Prentsan zabaldu da Portlandeko enpresa batzordeko buru Javier



Javier Lekunberri, David Medina eta Juan Goien.

Lekunberri izan zitekeela hautagaia. Baina Medinak azaldu digunez, "orain arte aldaketa trauma-

tikoa ez izateko bidea aztertzen egon gara. Hori nahi genuen, zati-ketarik ez sortzea eta ez mintzea".

## Inasa

### Irurtzun

# Gobernuak Inasan izandako jokabidea zalantzan jarri du oposizioak

**Inplikazioa erabatekoa izan dela erantzun dute gobernutik: "egia da Inasari jarraipenik ezin izan zaiola eman ikustea etsigarria dela"**

Bilduk eskatuta Inasaren itxierari buruzko azalpenak eman zituen herenegun Lourdes Goikoetxea kontseilariak Parlamentuan. Gobernuak kideak esan zuenez, "eskutan izan dugun guztia egin dugu Inasaren jarduna eta lanpostuak mantentzeko, jakinik erabakiak hartuko zituzten konkurtso administratzailea eta merkataritza-erloto epaitegia zeudela".

Goikoetxeak azaldu zuenez gobernuak esku hartu zezakeen hiru arlotan aritu zen. Konkurtsoa hasi zenean eta enpresa itxi aurretik, laguntzak ezin zirela eskatu argitu zuen. "Itxiera gertatu zenean eskatu ziren. 819.449,62 euroko zorra du (interesak barne) Baikap-ek".

Bestetik, Goikoetxeak azaldu zuenez, lan isuna jarri zitzaion enpresari, bete beharrak ez bete-



Inasa itxi eta bost hilabetera hizketagai izan zen Parlamentuan.

tzeagatik. Eta, azkenik, lantegia dagoen tokiaren ingurumen arloko lehengoratzeko eskatu zaiola argitu zuen. "Horrek zenbat balio duen ez dakigu oraindik".

Baikapek 2012ko lastailean erosketak eskaintza bati uko egin ziola gaineratu zuen. Zuzendaritzak

lantegia ixtea erabaki ondoren, Nafarroako Gobernuaren ahaleginak izan ziren: lehenik, langileak ahalik eta hobekien ateratzeko akordio bat lortzea, zuzendaritza eman beharreko pausoak errespetatzera behartuz: kanpo-birkokatze plan bat aurkeztera eta gizarte

akonpainamendu neurriak hartzea. Abenduaren 26an Inasaren likidazio fasearen irekiera egin zela jakinarazi zen. "Orain likidazio plana aztertuko da eta etengabeko jarraipena egingen dugu."

Kontseilariak argitu zuen udan "prozesu bideragarri bat egon balitz, dudarik gabe, gobernuak makinaria erosiko zukeela. ANE-Lekin egindako bileretan aurrera egiteko oso jardura konplexua zela argi ikusi zen, ordea". Gogorazi zuen udan inbertsio taldeak egindako eskaintza konkurtsoko administratzaileak ez zuela onartu. Bestalde, gogora ekarri zuen konkurtsoa hasi aurretik langileek kontratu guztiek, borondatez, hausteko akordioa sinatu zutela, beldur zirelako prozesua hasiz gero ez zutela ezer kobratuko. Horrek prozesuan garai bat eta bestea markatu zituela nabarmendu zuen.

### Kronologia laburra

**2012ko garagarrilean** prozesua hasi zenean, 155 langile kalera-tzeko aurreneko EEE aurkeztu zenean, lehen harremanak izan genituen. Arrazoiak ziren: ekoizpena eta ekonomikoak.

**2012-10-23** Baikap-ek Netbit enpresari makinaria hainbat lotetan enkantean saltzeko eskatera egin zion. 819.449,62 euro. **2012-11-20** Nafarroako Gobernuak Baikap-i emandako dirulaguntzak bueltatzea eskatu zion.

**2013-02-13** Konkurtso administratzaileak merkataritza-erloto epaitegiari makinaria saltzeko baimena eskatu zion.

**2013-06-10** Konkurtso administratzaileak makinariaren salmenta geldiarazi zuen 15 egunez. Talde batek enpresa esku-ratzeko proposamena egin behar zuen.

**2014-08-14** Langile talde batek makinaria salmentaren kontra jarritako helegitea atzera bota zuen epaileak.

### Jokabidearekin zalantzak

# Jokabidearekin zalantzak

**Bikendi Bareak** (Bildu) borondatezko hartzekodunen konkurtsoan sartu aurretik zuzendaritzak makinaria enkantean saltzeko zuten asmoaren jakitun ziren galdetu zion kontseilariari. Langileak kontratuen etetea sinatuko zuten akordioa lortzeko Nafarroako Gobernu bitartekari izan zela gogoratu zuen Bareak. "Puntuetako batean, kalte-ordaina makinariaren salmentari lotuta zegoen". Lehentasuna enplegua eta jarduna mantentzea izan beharko lukeela uste du Bareak.

Baikap-ek 10 langilerekin komertzializazio lanak egiteko proposamena, jardura geldiarazteko tranpatzat jo zuen Bildukoak. "Halakorik ez zuen egin eta aktiboen salmenta geldiarazteko inork ez zuen helegiterik aurkez-



Itxieraren kontra borroka egin zen. Baikapek udalari 60.400 € zor dizkio.

tu. Langileek ezin zuten kaleratuak zeudelako eta ez zutelako zorrik". Nafarroako Gobernuak zorduna izanik horretarako aukera zuen eta ez zuela egin leporatu zion.

Udan gobernuak makinaria erosi edo haren erosketak abalatu

edo salmenta errekurritzeko aukerak zituela eta ez zuela halako ezer egin nabarmendu zuen Bareak. "Nafarroako Gobernuak hainbat aukera izan ditu Inasa ez desegiteko, baina besterik ezin zuena erosi edo haren erosketak abalatu

gutxi batzuk erabiliz" salatu zuen Bareak. Baita Baikapen jarrera administratzaileko egoera konpontzeko gaitasun falta ere. Bultzada ekonomikoa emateko borondate falta ere nabarmendu zuen.

**Coro Gainzak** (UPN) esan zuenez, "azken emaitza ez zitzaigun inori gustatu, baina uste dut gobernuak itxiera saihesteko urratsak egin zituela". Ezinezkoa izan zela gaineratu zuen.

**Txentxo Jimenez** (Aralar-Na Bai) iritziz: "ukituak ziren alde guztien borondatearen gaineratik bere borondate bete du Baikap-ek, enpresa likidatu du". Inasaren bideragarritasuna eta jabe aldatzea posible zela nabarmendu zuen. "Enpresak eraisteko asmoarekin etortzen direnei aurre egin behar zaie". Gobernuaren jardura "dispertsoa" izan zela adierazi zuen. Zorduna bada prozesuan zergatik ez zuen esku hartu gal-

detu zuen.

**Jose Migel Nuinek** (I-E) Baikap Inasa ixtera etorri zela adierazi zuen eta langileen enpresaren jarduna mantentzeko ahalegina aitortu zuen. Akaberarekin "etsipena" sortzen dela gaineratu zuen. "Langileek borrokatu zuten eta ez dakit besteok, gobernuak, maila eman duen". Itxiera saihesteko egin zitekeen guztia egin ote zen galdetu zuen. Legedia ez dela egokia eta halako enpresa jokabideak errazten dituela salatu zuen eta, horregatik, legedia aldaketa eskatu zuen.

**Manu Aierdik**, (Geroa Bai), azkenik, Baikap-en espekulazio bokazio hutsa nabarmendu zuen. Legediak halako aukera ematea salatu eta Inasako langileen konpromisoa nabarmendu zuen. Egun hartzekodunen konkurtsoa zertan den, gobernuaren jarrera zein den eta zein aukera dauden argitzea eskatu zuen.



## » Lakuntza

# Udalak gaztetxoekin aritzeko hezitzailea kontratatuko du

**Zineko lanak despeditzeko kiusugilea eta kiusugile-laguntzailea ere kontratatuko ditu**

Lakuntzako Udalak aurten 973.154 euroko aurrekontua izanen du (171.859 euro inbertsiotarako). Diru hori nola kudeatu erabaki aurretik udalak lakuntzarren artean inkesta zabaldu zuen. 11 gairen zerrendazegoen inkestan eta herri-tarrei haien lehentasunezko gaiak markatzeko eskatu zieten. 105 inkesta jaso zituzten udaletxean.

Oihane Uribe-Etxeberria zinegotziak jakinarazi digunez, lakuntzarrendako lehentasunezkoa da zinemako lanak despeditzea eta plazakolanak egitea. Horrekin bate-

ra, beharrezko jo zuten 12 urtetik gorako gaztetxoekin aririkoden hezitzaile baten kontratazioa eta parkeko lanak despeditzea. Lehentasunetan hurrenakeuskararen erabilaren sustapena, argiteria publikoaren kontsumoa murriztea eta krisiaren eragina murrizteko asmoz, elkartasun ekimenak sustatzea zeuden. Baita mendi ibilbideak markatzea, ahozko ondarearen dibulgazioa, trafikoaren berrantolaketa eta kale izendegiko kartel batzuk jartzea.

## Kontratazioak

Hiru langile kontratatuko ditu Lakuntzako Udalak. Negu akabe-

## Beste inbertsioak

Kattuka obra bukaera (patioa)	17.500 euro
Ibilgailua erosi	15.000 euro
Langileendako aldagelak (CAN zaharra)	6.000 euro
Itxesalde futbol zelaiaren hobekuntzak	5.600 euro
Txorrokota errekan hobekuntzak	2.000 euro
Igerilekuan hobekuntzak	2.000 euro
Parkeko azken lanak	1.000 euro

ratik 2015eko garagarzara arte ariko da gaztetxoekin hezitzaile bat. Lanaldi erdiko kontratua izanen du. Bestalde, Lakuntzako Udalak bere gain hartu du zinemako lanak despeditzeko ardura. Eta horretarako 100.000 euro bideratu ditu aurrekontuan. Ondoren, egindako gastu guztiak Espainia-



Plaza

Herriko plazaren eraldaketa lanak otsaila erdialdean edo martxoan hasiko ditu Tex enpresak. Agorrilerako despeditu beharko ditu. Lanek 324.160 euroko aurrekontua dute, joan den urteko udalaren diru-kontuan aurreikusitak zeudenak. Lakuntzako Udalak lan horiek egiteko Nafarroako Gobernuaren 201.576 euroko diru-laguntza jasoko du eta Mank-en 6.650 euroko beste bat. Ibarreko erakundeak ur-azpiegituren inguruko eskumena duela eman du azken diru-laguntza hori. Udalak lanak egiteko 115.934 euro jarri beharko ditu. Eta beste 20.000 euro markesina berria egiteko, dagoena aldatu egingen baita.

ko Gobernuari pasako dizkio, hari baitzegokion lana egitea.

Zinegotziak azaldu digunez, udala dagoeneko gremioekin hitz egiten ari da eta haiek otsailan edo

martxoan sartuko lirateke lanera. Eta, haiekin batera, udalak kontratatutako kiusugilea eta kiusugile-laguntzailea. Horiek bizpahiru hila-beterako kontratua izanen dute.

## » Dorrao / Bakaiku / Iturmendi / Urdiain

# San Anton kofradiak bihar-etzi elkartuko dira

Animalien eta abeltzainekin eta aberekin zerikusia duten lanbideen babeslea da gaurko eguna, San Anton. Sakanan abeltzaintzak eta mandazainek indarra zuten garaitik heldu diren lau kofradia iritsi dira gaur egunera eta haietako kofradeak izanen dira bihar eta etzi elkartuko direnak. Herri bakoitzeko san antondarrak euren herriko elizan bilduko dira. Elizkizuna eta gero karguak berri-tuko dituzte eta bilkura mahaia- ren inguruan despedituko dute, bazkaltzen.

## Dorrao

Goizterren bilduko diren san antondar sakandarrak dorrobar- rarak izanen dira. Bihar 9:00etan

mezan elkartuko dira kofradeak. Handik priorearen etxera joanen dira erresponsoa errezatzen. Hildako kofradeen alde egindako otoi- tzak izanen dira goiz parteko horiek. Gero gosaltzera elkartuko dira. Bazkaldu aurretik prioreak eta idazkariak kofradiaren mar- txaren berri emanen dute. San antondar dorrobarrek Itur Aldea elkartean bazkalduko dute.

## Bakaiku

Hildako kofradeen aldeko elizki- zuna 13:00etan egingen da Bakaiku- kun. Handik aterata, Bakarreko etxea elkartean, san antondar bakaikuarrak bildu eta ardura postua berri (maiordomoa eta beleroa) eta kontu liburua egune-



Iturmendiko san antondarrak, atzera ere, domekan elkartuko dira.

an jarriko dute. Horiek despeditu- ta elkartean bazkalduko dute.

## Iturmendi

Domekan, 11:00etan, San Anton kofradiako kideak elizan bilduko

dira, hildako kofradeen aldeko elizkizunean. Meza eta gero apaiz- etxean kofradiaren kontuak zuri- tu eta ardurak banatuko dituzte (priorea eta abanderadoa edo lan- guntzailea). Horiek despedituta,

Aritzaga elkartean bazkaltzera bilduko dira.

## Urdiain

Hildako kofradeen aldeko elizki- zunak elkartuko ditu larunbat eguerdian san antondar urdiain- darrak. Meza ondoren lehen ohi- koa zen eliza atarian abereak bedeinkatzea. Aspaldi animaliarik eramaten ez bada ere, eliza atean bedeinkapenari eusten zaio. Eli- zako eginkizunak, San Antonen omenezko kanta abestuz despeditu- ko dute. Handik, segituan herria- ren etxera joanen dira kofradeak. Kontuak egunean jarri eta kar- guak, maiordomoak, berri-tuko dituzte. Lan horiek eginda Aitzi- berelkatean bazkaita joanen dira.

## » Altsasu

# Udalak Santa Agedako kinto-bazkarirako azpiegitura eskaini du



Ospakizun handirako, Santa Ageda- rako, gero eta gutxiago falta da. Aurtengo kintoak egunero dantzak entseatzen ari diren bitartean, aurreko urteetako kintek otsaila- ren 8rako euren bazkariak lotzen

ari dira.

Jendeak herritik kanpo baz- kaltzera ez joateko eta festa giroa indartzeko, Altsasuko Udalak, aurreko bi urteetan bezala, kintei bere azpiegitura utzi die han euren

bazkariak antola ditzaten. Intere- sa duten kintadak Iortia kultur gunetik pasa beharko dira hilaren 27ko 14:00ak baino lehen.

Izena eman dutenen arabera erabakiko du udalak berezein azpie-

gitura erabili. Festa indartzeko asmo hori 2012an abiatu zuen uda- lak. Orduan kintada batek onartu zuen eskaintza. Joan den urtean Burunda pilotalekuak 6 kintada hartu zituen, 180 pertsona.

## etxarri aranazko udala

### XEHETASUN AZTERLANA HASIERA BATEZ ONESTEA

2013ko abenduaren 30ean, Alkatetzaren ebazpenaren bidez (2013/289), hasiera batez onetsi zen, Ikastola Andra Mari Utxubartxiki alderdian kontzesioan duen partzelaren xehetasun azterlana. Proiektua Andra Mari Ikastolako Guraso Elkarteak sustatua da.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, espeditien- tea jendaurrean egonen da hoguei egunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezten. Jendaurreko epean ez badu inork alegazio- rik aurkezten, agiria behin betikoz onetsiko da, betiere bidezko bada.



Etxarri Aranatz, 2014ko urtarrilaren 8an.  
Alkate Ordea: Eneka Maiz Ulayar

**ETXARRI ARANAZKO UDALA**

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16



PILOTA-TRINKETEA

**MURGIENDO NAFARROAKO TRINKETE**  
**TXAPELKETAN:** Koldo Murgiondo etxarri-  
 rrak Etxeberriarekin osatu du bikoa trinke-

te txapelketako eskuz binakako modalita-  
 tean aritzeko. Lehen jardunaldian 40-11  
 galdu zuten Artuchen eta Lukinen kontra.

# Kirola >>

&gt;&gt;



Sanchez lider Gabonen. RURAL KUTXA

## Luis Leon Sanchezek lehen garaipena eman dio Rural Kutxari Gabonen

Ongi hasi dira gauzak Sakanatik sortutako Rural Kutxa-Seguros RGA talde kontinentalarendako. Astelehenen hasi zuen denboraldia taldeak, Afrikan, Gaboneko La Tropicale Amissa Bongo lasterketan. Lehen-dabiziko etapen 21 txirrundulari ihes egin zuten eta Rural Kutxako Luis Leon Sanchez gailendu zen helmugako esprintean. "Taldeak ongi egin du lan eta irabaztea denondako oso motibagarria da. Ea osasunak errespetatzen gaituen eta emaitza onak izaten jarraitzen duten" adierazi zuen Sanchezek. Ordutik lidergoa eutsi du Rural Kutxakoak. Atzoko emaitzen faltan, Guaixeko erredakzioa ixteko garaian oraindik lider zen Luis Leon Sanchez.

### HORNER RURAL KUTXARA?

Hainbat komunikabideek zabaldu dutenez, aurreko urteko Vueltako irabazle Chris Horner Rural Kutxa taldetik gertu dago. Talderik gabe dago 42 urteko estatubatuarra eta, nonbait, Vívelo USA etxearen eskutik iritsiko litzateke estatubatuarra Rural Kutxara. Izan ere, Rural Kutxak Vívelo etxe bulgariarreko bizikletak erabiltzen ditu, eta Vívelo etxe-ko AEBetako sareak Hornerrek bere jaioterrian duen fama erabili nahiko luke publizitate gisa. Hainbat iturriren arabera Vívelo etxeak ordainduko luke Hornerren kontratua eta Rural Kutxak ez luke batere ordaindu beharko. Horrela, Rural Kutxarekin Hornerrek Espainiako Vueltatik borrokatzeko aukera izango luke eta, akaso, Giroan aritzeko gonbidapenen bat jaso. Bere aldetik, Rural Kutxako prentsa arduradun Alberto Sanzek, bere aldetik, Chris Hornerren fitxaketa negoziatzen ari direla ukatu du. "Taldeak ez du ezer egin eta ez du inorekin hitz egin. Pentsatzekoa da Vívelo enpresaren filtrazioen bat izan dela dena" adierazi dute Rural Kutxatik. "Printzipioz gure plantilla itxita dago. Sorpresa handia gertatzen ez bada ez da txirrundulari gehiago etorriko. Gure egutegirako plantilla nahikoa dugu" gaineratu du. "Dena den, eta publikatutakoa egia bada, puntako txirrundulari bat eskaintzen ari dira dohain, eta baloratu beharko genuke". Hortaz, ikusi beharko da Hornerren kontu hau nola bukatzen duen.

### Txirrundularitza

# Vueltak ekarriko dituenak

IRAILAREN 3AN IRUÑEA-ARALARKO SAN MIGEL ETAPA HARTUKO DU ESPAINIAKO VUETAK. UHARTE ARAKILGO UDALA KEXU DA EZ DUELAKO UHARTEKO PISTATIK PASATZEKO BAIMENIK EZ JAKINARAZPENIK JASO. VUETAKO ANTOLATZAILE UNIPUBLIC ENPRESARI PISTA KONPONTZEA, EUSKAREN PRESENTZIA BERMATZEA ETA BESTE EXIJITUKO DIO UDALAK

Larunbatean konfirmatu zen, 2014ko Vueltaren aurkezpenean. Aurten Sakana zapalduko du Espainiako Vueltak. Irailaren 3an izanen da, Iruñean hasi eta Aralarko San Migel santutegian despidituko den mendiko etapa ikusgarrian (151 km). Iruñetik Tafallara abiatuko da etapa, eta Lizarraldeatik Lizarragako portua igo (2. maila, 1.035 m) eta gero, Lizarragatik jaitsi eta Etxarri Arantz, Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Uhartte Arakil pasa ondoren, Zamartzetik gora Aralarrera igo da, santutegian despiditzeko (1. maila, 1.200 m).

### Mendia protagonista

Vuelta Cadizen hasiko da, Jerez de la Fronteran, abuztuaren 23an, 12,6 km-ko taldekako erlojupekoarekin. Irailaren 14an despidituko da, estreinako Madrildik kanpo, Santiago de Compostelan, hain zuzen. 10 km-ko banakako erlojupekoak esango dio agur Vueltari. Tartean, 19 etapa izango ditu Vueltak, eta 11. etapa izango da, hain zuzen, Iruñean hasi eta Aralarko santutegian despidituko dena. Aurreko urteko audientzia datuak eta zaleen gustuak kontuan hartuta, etapa menditsuen eta portu gainean despiditzen diren etapen alde egin du Vueltak, eta hor kokatzen da Aralarko etapa.



Txirrundulariak Aralarko pistatik gora. WWW.PEDALIERWEB.ES

### Aralarkoa, etapa ikusgarria

Etapa ikusgarria izango da. Txirrundulariak Lizarragako 2. mailako portua igo eta jaistetik iritsiko dira Sakanara, eta, berehala, Uhartte Arakilgo porlaneko pistatik igoko dira Aralarrera. 11 km-ko igoera gogor eta ikusgarria da Uharttekoa. Uhartte Arakilek dituen 455 metroko altueratik santutegi-ko 1.200 metrora igo beharko dute txirrundulariek, batez besteko %8ko maldekin. Hala ere, tramu konkretubatuetan %15ekoak dira aldapak. Igoera gogorra da, Migel Indurain txirrundulari handiak adierazi moduan, "Frantziako Tourrerako modukoa".

Euskal Herriko Itzulia sarritan saiatu izan da Aralarko San Migelko igoera bere proban jasotzen, baina ezinezkoa izan da pistaren egoera kaxkarragatik eta Nafarroako administrazioak pista konpontzeko inolako kolaborazio ez laguntzarik eman ez izanagatik. Baina badirudi Espainiako Vueltak kolaborazio hori lortu duela eta tropeleko izar nagusiak Aralarren gora ikusteko aukera izango dugula. Jakina, etapak txirrundulari asko bilduko dituela aurreikusten da. Bestalde, Espainiako Vuelta Nafarroatik eta Sakanatik pasatzeak ere emango du zeresana.

### Pista konpondu beharko da

Uhartte Arakil eta Aralarko santutegia lotzen dituen pista Uhartte Arakilgo udalaren jabetza da. Aspalditik egoera nahiko kaxkarrean dago. Igoera hasi eta kilometro t'erdia, gutxi gora behera, daude pistako lehen pitzadura edo zartadurak. Pitzadura horiek hainbat tartetan aurkitu daitezke, eta pistaren azkene-ko kilometroa oso egoera txarrean dago.

Espainiako Vuelta bertatik pasatzeko errepidea konpondu behar izango da. Uhartte Arakilgo Udalak aspaldi eskatu izan dio Nafarroako Gobernuari pista konpondu dezala, baina Gobernuak beti eman izan du ezezkoa, pista Udalarena dela argudiatuta. Udalak pistaren jabetza gobernuari ematea ere proposatu zuen, baina Gobernuak ezezkoarekin erantzun zuen. Pista konpontzeak gastu handia du eta Udalak ezin dio bere kabuz aurre egin. Egon daitezkeen istripuak ekiditeko ere, Udalak ez du bertatik bizikletak ibiltzea baimentzen. Txirrundulari bati zerbaitez gertatuz gero, txirrundulariarena izango da erantzukizuna.

&gt;&gt;

## Udala asteartean bildu zen Pruden Indurainekin

Uhartte Arakilgo Udalean ez dute Vuelta pistatik pasatzeko baimenik edo jakinarazpenik jaso. "Gauzak egin diren modua, formak, gaizki iruditzen zaizkigu" adierazi digu Uhartte Arakilgo Udaleko zinegotzi Aina Aiestaranek. Aralarko santutegiko kaperauak eta Aralarko Mikel Goiaingueruaren kofradiako ordezkariak bilera eskatua zuten, asteartean, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari Pruden Indurainekin, eta bertan izan zen ere Aina Aiestaran. "Lehenik eta behin esan diogu gaizki iruditzen zaigula Vuelta santutegian despiditzen dela prentsa bidez enteratzea. Gauzak egin diren moduarekin gure desadostasuna agertu diogu. Berak onartu du formak ez direla egokiak izan, baina gaia bere

eskutan ez dagoela erantzun digu, eta gainontzeko herrietako udal ordezkariak ez direla azalpen bila joan. Orduan guk erantzun diogu gainontzeko errepideak Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituela, baina San Migelko pista Uhartteko herriarena dela, baso-pista bat dela, eta gurekin harremanetan jarri behar zirela" kontatu digu Aiestaranek.

### Unipublic-i eskaria: pista konpontzea, euskararen presentzia bermatzea eta beste

Espainiako Vuelta kudeatzen duen UNIPUBLIC enpresak bilera bat egingo du Vueltak ukitzen dituen Nafarroako instituzio eta administrazio guztiarekin. "Gu bilera horretara joango gara eta hainbat eskari egingo ditugu. Batetik, segurta-

sunarena. Pista konpondu beharra dago derrigorrez. Guk ez dugueskatu Vuelta hemendik pasatzea, eta, hortaz, guk ez dugu pistaren konpontzea ordainduko, nahiz eta pista gurea izan. Ez da soilik pista konpontzea. Bidea garbitu, sasiak kendu... lan asko egin beharko dira. Horretarako, lehenik eta behingure arkitektoari eskatuko diogu pistaren egoerari buruzko txostea prestatu dezala, pista eta pistaren ingurunea nola dagoen zehaztea. Eta jo behar dugun leku guztietara joko dugu" adierazi digu zinegotziak. Beste hainbat eskakizun eraman- gogotuzte bilerara, tartean hizkuntzaren ingurukoak. "Etapa San Migelen despidituko denez, Uhartte Arakilgo dermioan, guk Uhartte aplikatzen ditugun hizkuntza- eskariak bete ditzatela eskatuko die-



Aina Aiestaran zinegotzia.

gu. Hau da, sari emateetan eta beste euskararen presentzia ziurtatzea. Horretaz gain, etapa telebitzaz emateko makina bat azpiegitura jarri beharko da eta hori ere aztertu beharko da, nola egin... Gero Udalak tasa batzuk ditu... denetatik hitz egin beharko dugu" gaineratu du zinegotziak.



## Mendia



## Nazar-Codes Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak mendi ibilbidea antolatu du hurrengo asteburuan, ilbeltzaren 26an. Asmoa Nazaretik Codesera joatea da. Manolo Igoa da ibilbidearen arduraduna. Autobusean izena eman nahi duenak ostegunera arteko epea du, herrietako arduradunei esanez. Ostegunetik aurrera, 639 11 76 31 telefonora hots egin beharko da. Autobusa goizeko 7:30ean abiatuko da Olaztitik, eta geldialdiak egiten ditu herrietan, izena eman duten mendizaleak hartzeko.

## IGANDEAN GARES-LIZARRA IRATXOREKIN

Irurtzango Iratxo mendi taldeak mendi ibilbidea antolatu du igandean. Gares-Lizarra ibilbidea osatzea da asmoa. Hitzordua goizeko 8:00etan jarri dute, Iratxon. Bestalde, Sakanako Ikastolen Mendi Taldeak antolatuta, igandean Ergoienako Bira egiteko asmoa dago, eguraldiak laguntzen badu.

## Pilota

## Sakanako pilotari onenen bila

2013KO SAKANAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK JOKATUKO DIRA BIHAR, LARUNBATEAN, ARBIZUN ETA LAKUNTZAN

## Sakanako Pilota Txapelketako finalak

## Arbizun (16:30etik aurrera)

**Umeak 2:** Baztarrika-Arretxe (Aldabide) / Araña-Albarrazin (Gure Pilota)

**Umeak 1:** Erdozia-Altzelai (Gure Pilota) / Gaintza-Gorostieta (Irurtzun)

**Kimuak 2:** Olaetxea-Imaz (Aldabide) / Jimenez-Gorrotxategi (Aldabide)

**Kimuak 1:** Imaz-Mariñelarena (Aldabide) / Laso-Azpiroz (Irurtzun)

**Haurrak 2:** Astiz-Araña (Gure Pilota) / Reparaz-Ganboa (Aldabide)

**Haurrak 1:** Otxoa-Igoa (Gure Pilota) / Olaetxea-Petriati (Aldabide)

**Kadeteak 2:** Calvo-Arbizu (Sutegi) / Bengoetxea-Galartza (Pilotajauku)

## Lakuntzan (17:00etatik aurrera Behar Zana pilotalekuan)

**Txikiak:** Escudero-Cocera (Lakuntza) / Jaka-Oiarbide (Gure Pilota)

**Kadetak 1 (lau t'erdian):** Ramirez de Alda (Pilotajauku) / Goiakoetxea (Aldabide)

**Gazteak:** Galartza-Grados (Pilotajauku) / Zudaire-Ustarroz (Irurtzun)

**Nagusiak:** Ijurra-Mariekurrrena (Irurtzun) / Murgiondo-Agirre (Aldabide)

Azaroan hasi zen Sakanako Pilota Txapelketa. Sakanako pilota klubetan dabilten 60 bikotek parte hartu dute. Ondoko klubetako pilotariak lehiatu dira txapelketan: Irurtzun, Altsasuko Pilotajauku, Etxarri Aranazko Gure Pilota Elkarte, Arbizuko Aldabide, Olaztik Sutegi eta aurten sortu berri den Lakuntza. Partidak aipatu klubetako herrietan jokatuko dira.

Sakanako Pilota Txapelketa Sakanako pilota klubek antolatu dute, pilota sustatzeko eta kategoria txikikoei lehiaketan aritzea



Sakanako Pilota Txapelketako aurreko edizio bateko finalistak. ARTXIBOA

ahalbidetzeko. Giro ona izan da eta erabakiko da, Arbizun eta Lakuntzan, nor izan diren onenak.



## GURE IKASLEEN AHOTAN



## GOIERRIKO CAMPUSA ONDO PRESTATUTA DAGO ETA IKASKETAK ATSEGINAK EGITEN DIRA

**ANDER GABIRONDO** (ITURMENDI, 19 URTE) MEKANIKAKO INGENIARITZAKO 2.MAILA IKASTEN ARI DA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOIERRIKO CAMPUSEAN.



**Zergatik aukeratu zenuen Mekanikako Ingeniaritza Gradua? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAN?** Txikitatik autoak eta makinak asko gustatu izan zaizkit, horren inguruko ikasketak egin nahi nituen, Mekanikako gradua proposena zela pentsatu nuen. Anaiak ere ingeniari izan zuten eta horrek bideratu ninduen. Goierriko Eskolan Batxilergoa egitean, MU-ko informazioa ematen ziguten eta metodologia berria eta lan egiteko modua atsegina iruditu zitzaizkidan. Goierriko campusa etxetik hurbil edukitzean aukera onena zela pentsatu nuen.

## Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso ona izan da, unibertsitatean giro ona dago. Klase ez oso handiak edukitzean denok ezagutzen dugu elkar, unibertsitate askotan ez bezala. Irakasleak ere ezagunak dira eta horrek giroa ere hobetzen du. Lagun asko egin ditut eta primeran eramaten gara.

**Nola definituko zenuke jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoari garrantzi handia ematen zaio?** Metodologia jarraia da, lan konstantea egin behar da ia hasierako egunetatik, batez ere sei hileko erditik aurrera. Zerbait utzi ezker pilotzen doa eta ez dago aukera askorik galdutako denbora berreskuratzeko. Asko ikasten da metodologia honekin, nahigabe ere gauzak barneratzen dira azterketak astean edo bi astean behin edukitzean. Azkeneko astetako azterketa pilaketa neurri batean ekiditen du eta hori eskertzekoa da. Klaseak teorikoak dira, baina alde praktikoari garrantzi asko ematen zaio: praktika ezberdinak egin ditugu aurten eta urteko bi proiektu garaiak erabat praktikok dira.

## MUTik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?

Daukaten metodologia eta ikasketaz gain daukaten

aukerak (lana eta ikastea partekatze aukera, adibidez) da gehien gustatzen zaidana. Gainera, Goierriko campusa ondo prestatuta dago eta ikasketak atseginak egiten dira bertan, hori izaten da garrantzitsua. Hobetzeko, beti egoten da zerbait, baina kasu honetan ez dago gauza handirik.

## Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, kontaguz apur bat non ari zaren lanean eta zer egiten duzun?

Unibertsitatean bertan bekadun moduan nabil lanean AMPO S. COOP-entzat beste bi klasekiderekin. Lanari dagokionez, AMPO S. COOP-eko bulego teknikoko kideekin gabilta elkarlanean, bertako produktuetako planoetan hobekuntzak aplikatuz.

## Gogorra egiten zaizu eguneroko lan kargari eustea?

Hasieran gogorra egiten da, lehenengo bi asteetan etxera leher eginda iristen nintzen. Behin martxa hartuta ez da hainbesterako, egun erdia pasatzen duzu etxetik kanpo, baina lan atsegina izanda, azkar pasatzen dira orduak. Klaseko ordu batzuk luzeak egiten dira; ordea, bazkaldu berri tripa betearekin ikastea kostatzen da. Okerrera etxera iritsi eta ikasten hastea da, azterketak daudenean batez ere. Hala ere, esperientzia polita da lan mundua ezagutzea eta gauza berriak ikastea; irabazitako xoxak ere ondo etortzen dira parranda pixka bat egiteko.

## Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Oraindik ez daukat guztiz argi. Ingeniaritza industrialeko masterra egitea izan dut buruan, baina oraindik bi urte geratzen zaizkit gradua bukatzeko, dena ondo badoa, eta gauzak dauden bezala ikusita, agian hobe ikasten jarraitzea. Hala ere, lan mundura hurbiltzeko, tentazioa eman dit ikasketak hauek amaitu eta lanean hasteko. Seguruenik lehenengoagatik egingo nuke apustu.

## Atletismoa

## 15 sakandar IX. Aritz Beteluko Krosean

## Sakandarrak IX. Aritz Beteluko Krosean

1.	Javier Nagore	24:34
21.	Francisco Javier Gomez	28:25
28.	Juan Luis Maiza	29:02
29.	Andoni Azanza	29:03
39.	Iban Gonzalez	29:34
40.	Juan Carlos Gomez	29:38
52.	Gorka Garcia de Eulate	30:44
71.	Asier Larrion	31:23
72.	Iñaki Alvaro	31:27
75.	Santi Agirre	31:45
87.	Juan Carlos Perez	32:19
90.	Iñigo Maiza	32:20
172.	Maite Zabaleta	39:00
173.	Jose Javier Maiza	39:00



Fco Javier Gomez. ARTXIBOA

(28:43) alde ederra atera zion Maitane Melerori (30:02). Cristina Loe da izan zen 3.a (30:40). 15 sakandar aritu ziren Betelun korrika eta Francisco Javier Gomez altsasuarra izan zen azkarrena, helmugara 21. postuan heldu eta gero (28:25).

Aurretik kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren. Kadeteen proban (8 km) 7 korrikalari lehiatu ziren eta Jon Mattin Sukunza leitzarra izan zen azkarrena (11:49). Fermin Azkargorta iturmendiarra 3.a izan zen (12:16) eta Oian Perez altsasuarra 6.a (14:13).

Igandean jokatu zen IX. Aritz Beteluko krosa, Betelun. Proba Atalutik eta Arribetik pasatzen zen, atzera ere Betelun despeditzeko (7,7 km). Hasieratik Zizur Nagusiko Javier Nagorek hartu zuen aurrea, gertu Raul Amatriain zuela. Nagorek erritmoa gogortu zuen eta bakarrik heldu zen helmugara (24:34), Amatriaini 1:17ko denbora atereaz (25:17). Hossain Kaanachek osatu zuen podiuma (25:50). Emakumezkoetan Maider Gaztañagak

# FESTAK

Lakuntza:

San Saastinak



Larunbatean danborrada txikia eginen da eta igandean danborrada nagusia.

## San Saastinen txanda

Astleheneraino luzatuko dira Lakuntzako festak

Asteburuan festetan murgilduko dira lakuntzarrek. Izan ere, San Saastinak dira lakuntzarren benetazko festak, agorrileko festak garai bateko feriak baitziren. Berez lau eguneko festak izaten dira ilbeltze-koak, baina, krisia dela eta hiruegunetara mugatu zituen Udalak. Baina Lakuntzako tabernen ekimenez aurtengo San Saastiñek lau jai egun izango dituzte. Gaur, ostiralean, hasi eta astlehenean, San Saastin egunean despedituko dira.

Txupinazoa gaur 19:30ean leher-tuko da eta ondoren triki poteoa izanen da, eta, 20:00etan, Udalak eskainitako auzatea eta buruhandien

lehen bisita. Gauean DJ Txenek alaituko du giroa. Bihar, larunbatean, Lakuntzako erraldoiek eta buruhandiek kaleak alaituko dituzte eta 13:30ean piperropil onenak aukeratu dira plazan. Piperropilak San Saastinetarako propio prestatzen diren aniseko opil bereziak dira, su baxuan talaburnian egiten direnak. Lakuntzako etxeetan piperropilak egiteko ohitura gorde da eta urteko piperropil onena zein den jakiteko jakin mina handia izaten da. Arratsaldean txikiaren danborrada izanen da eta gauean jai giroa ordu txikiak arte luzatuko da.

**24. Danborradan Parkea Martxan omenduko dute**

Lakuntzako Pertza elkarteak antolatuta, igande gauerdian 24. danbo-

rrada gidatuko dute Joxe Floresek eta Ricardo Aretak. Aurten, Parkea Martxan ekimena izango da omen-dua, txanoa jantziko duena. Izan ere, Espainiako Gobernuak zineko lanak geldiarazi ondoren, parke berria egiteko asmoa zintzilik geratu zen eta egoerari buelta emateko Parkea Martxan ekimena hasi zen lanean. "Udaletxean dirurik gabe, lakuntzarrek Parkea Martxan ekimenean bildu ziren eta elkarlan edo auzolanaren bidez makina bat ekimen jarri zituzten martxan, dirua ateratzeko. Eta diru horri esker egun dagoen parkea jaso da. Ekimenean parte hartu duten guztiak omendu nahi ditugu, herri osoa, azken finean. Honekerakusten du laguntzaren eta elkartasunaren bidez gauzak egin daitezkeela" adierazi du Floresek.

### San Saastin 2014. Egitaraua

>> Ilbeltzak 17,

ostirala

(Tabernariak jarritako eguna)

19:30ean Txupinazoa.

20:00etatik 22:00etara Triki-poteoa.

20:00etan Buruhandiak eta auzatea.

21:30ean Zezensuzkoa.

00:00etatik 2:00etara DJ Txen.

>> Ilbeltzak 18,

larunbata

13:00etan Erraldoiak eta Buruhandiak.

Izengabeak taldearekin kale animazioa.

13:30ean Piperropil lehiaketa plazan.

Sari banaketa.

17:00etan Sakanako Pilota Txapelketako finalak.

18:30etan Danborrada txikia eta txokolatada plazan.

20:00etan Buruhandiak eta auzatea.

20:00etatik 22:00etara Musika

Iñakirekin.

22:00etan Zezensuzkoa.

00:00etatik 2:00etara Musika: Terry &

Tery.

>> Ilbeltzak 19,

igandea

12:30ean Aizkolariak. 2013ko Euskal

Herriko txapeldun Iñaki Azurmendi

tartean (Conservas Del Reynoren eskutik).

13:00etan Auzatea (Conservas del

Reynoren eskutik).

17:00etatik 19:00etara Puzgarriak eta

material birziklatuekin jolasak.

20:00etan Buruhandiak eta auzatea.

20:00etatik 22:00etara Musika: Terry

& Tery.

22:00etan Zezensuzkoa.

00:00etan Danborrada.

>> Ilbeltzak 20,

astelehena. San Saastin eguna.

6:00etan Aurora.

11:00etan Erromeria San Saastin

ermitara.

12:00etan Meza ermitan.

13:00etan Auzatea ermitan.

18:30etan Dantzari txikiak herriko plazan.

19:00etan Auzatea eta buruhandiak.

19:30etik 21:30era Musika Iñakirekin.



Parkea Martxan ekimenari esker mustu izan da Lakuntzako parke berria.

Astlehenean, patroiairen egunean, San Saastin ermitako erromeriak ezin du huts egin. Bertan txokolatea, piperropilak eta auza-

tea dastatuko dira eta arratsaldean San Saastin egunean ohikoa den Alkate Dantza dantzatuko zaie alkate eta zinegotziei.

### Olatzagutia:

San Sebastianak

## San Sebastianen omenez

Goienkaleko ermitak gaur, atzera ere, atea zabalduko ditu titularren eguna baita: San Sebastian. Eguerdian meza izanen da. Hura despedituta, estalpean auza-

tea izanen da, auzotarrek prestatuta. Arratsaldeko bostetan zabalduko dira ermitako atea berriro, orduan arrosarioa erreztatze-ko. Hura bukatzean txokolatea eta

erroskilak dastatzeko aukera izanen da kanpoko aldean. San Sebastian ospakizunak frontoian despedituko dira, 19:30ean ardoa eta gazta banatuko baita.



**JUANLUZENE**  
SAGARDOTEGIA



948 604 571 · 680 652 183 ODERITZ

ilbeltzaren 18tik  
maiatzaren 4ra arte



ilbeltzak 18  
TXOTX!



## Paatsen olioak Kaluxan ikusgai

Patricia Paatsen margo erakusketa mustuko da gaur, 20:00etan, Urdiaingo Kaluxa tabernan. Otsailaren 14ra arte tabernatik pasatzen direnek olio margo abstraktuak ikus ditzakete.

Madrilen bizi da, nahiz eta sortzez argentinarra da Paats. Lastaila akaberako II. Altsasuko Arte Azokako artista gonbidatu eta ko bat izan zen. Margolariak olioak duen testura gogoko du. Baita koloreak asmo jakinik gabenahastea ere. Pintura abstrakturako gero eta zaletasun gehiago aitortu du. Ikusleen begiradek koadroez egiten dituzten interpretazioak, batzuetan egilearen ezberdinak direnak ere gogoko dituela adierazi du Paatsek. Pintura zer-bait herrikoia, libregisa ulertzen du margolariak, horregatik estimatzen du tabernetan, jendea sartzen den tokietan bere lana erakustea, denon eskura egoteko.

# Euskarazko nano ipuin onenaren bila

**Euskaltegiako Sakanako ikasleek eta Mintzakide programako partaideek aurkeztu ditzakete lanak, martxoaren 31ra arte**

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatu du nano ipuin lehiaketa. Euskalduntzen ari den Sakanako edozein pertsonak eta Mintzakide programako parte-hartzaileek har dezake parte. Lanak banaka edo taldeka aurkeztu ditzakete, beti ere, 100 hitz baino gehiago ez badituzte. Aurkeztutako lanak euskara hutsean idatziko dira eta argitaratu gabeak, jatorrizkoak eta beste edozein lehiaketetan saririk jaso gabeak izanen dira. Gainera, indarkeria, sexismoa, arrazakeria edo bestelako eskubide urraketak sustatzen dituzten lanak ez



dira onartuko.

Hiru mailetan banatuko dira sariak. Aurrenekoan B1 maila arteko ikasleek parte hartuko dute. Bigarrenean B2 maila artekoek eta azkenik, C1 maila arteko ikasleen maila izanen da. Mintzakideko parte-hartzaileek

euren jakintzaren arabera ko mailan parte hartuko dute; horretarako, propio maila azalduz. Lehiaketak aurrera egiteko gutxienez 10 lan aurkeztu beharko dira. Nanoipuinak plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira, bai Itsasi euskaltegian bai Sakana-

ko Mankomunitatean (euskarara@sakana-mank.com, pdf formatuan).

### Sakana

Ibarrari buruzko erreferentziaren bat sartzea ezinbestekoa da (tokiak, gertakari historikoak...).

## Floresen mikroipuina saritua

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen birziklatze-ari buruzko Nafarroako aurreneko lehiaketan, gazte mailan, bigarren saria lortu du Iratxe Floresek. *Siempre On* izenburuko lanak merezi izan dio aitortza lakuntzarrari. Pasa den asteazkenean jaso zuen diploma, oihal berrerrabilgarriko motxila eta lehiaketako kolaboratzaile diren erakundeetan gastatzekoa den txartela.

Nafarroako Gobernuaren menpeko den Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroak (CRANA) antolatu zuen lehiaketa. Aralarko Mikel Donea institutuak ikasleen parte hartzea sustatu zuenez, lan hori eskertu nahi diote eta ikastetxean bertan ekitaldi bat eginen da aurki, parte-hartzaileei oroigarri bana oparituz.



## Legazpi eta Altsasu kantuan senidetuta

**Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean, Trasteando eta Legazpiko Alaitasuna Errondaila. Sarrerak agortu dira**

Trasteando taldeko musikariak bihar anfitrioi lanak egingen dituzte, Legazpiko Alaitasuna Errondailaren bisita hartuko baitute. Bi musika taldeak ere Iortia kultur guneko eszenatokian ariko dira. Legazpiarrek Andoni Sarobe baritonoaren, Sandra Dominguez sopranoaren eta Cesar Vallejo piano-jolearen laguntza izanen dute euren emanaldian. Hainbat generoko doinuez osatutako programa eskainiko du Alaitasuna Errondailak: euskal doinuak, Hego Amerikakoak eta tradizionalak.

Emanaldia antolatu duen talde berak, Trasteandok, zabalduko du eta horretarako hiru doinu



prestatu dituzte. Alaitasunaren kontzertuaren ondoren, emanaldia despeditzeko, bi taldeak eszenatokian agurtuko dira, kantatzen. Altsasuarrei joan den urteko maiatzaren 4an Legazpin

egindako emanaldia bueltatzen diete Alaitasunakoek. Hiriberriko Juan Bautista Armendariz Larrearen ekimenez sortu zen Legazpiko musika taldea.

+ [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

## bazterretik

Aritz Viñas

### Zulu 9.30

Gaur Bartzelonako talde bat aurkeztu nahiko nizueke. Zulu 9.30, Baina zer da hau? Oraingoan reggae estiloko talde bat dakart aste-kari honetan dudan nire zatitxora. Esan bezala, Reggae kutsua du talde honek, baina hainbat estilo ezberdinekin nahastuta, horrela bere estilo propio eta berezia lortzen dute. Hamabi urte lanean daramatzan tal-

de bati buruz hitz egiten ari gara, jadanik bere bostgarren lana aurkeztzen ari dena. Gaur, bere azken diskari buruz hitz egin nahiko nuke nik hemen.

"Para todos los públicos" izeneko diska aurkezteko Espainiatik, Frantziatik eta Italiatik gira egin zuten eta oraingoan Guaixera ailegatu dira.

Diskaren izenak esaten duen bezala "Para todos los públicos" da talde honek sortzen duen musika, haien

abestiak positibotasunez beteta daude eta egun txarra izan eta gero, lasaitasuna eta oso beharrezkoak diren animo horiek berreskuratzen musika ikaragarri ona da.

Diska honetako abestietan mezuek garrantzi handia hartzen dute, kritika positibista lantzen du talde honek, hori guztia sortzen duten musika albo batera utzi gabe. Erritmolanduak eta entzuteko oso bereziak direnak aurkituko ditugu diska honetan.

Horretaz aparte beste artisten kolaborazioak daude diska honen barruan, "Todo Vuelve" abestia Txarango-ren laguntzarekin kontatu dute, eta Canteca de Macao-ko Anita eta Chiki-ren magia soma dezakegu "Mi Sitio" abestian. Gainera guztiz katalaneraz ateratu duten lehenengo abestia ere entzungo dugu lan honetan.

Azkenik kontzertuei buruz hitz egin nahiko nuke, zuzenean magia berezia du talde honek, oso kon-

tzertu landuak ditu eta, positibotasun eta jotzeko eta parranda egiteko gogo horiek ikusleekin konpartitzen dituzte, zaila da talde honen kontzertu batean aspertzea, haien musikak inguratu egiten zaitu eta beste unibertso batera bidaltzen zaitu kontzertuak irauten duen bitartean.

Bukatze ko esan beharra daukat Zulu 9.30en lan guztiak haien webgunean aurki daitezkeela dohainik. Animatu eta disfrutatu!!!

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 25%	euria: 68%	euria: 97%	euria: 90%	euria: 90%	euria: 90%
Min: 4 Max: 10	Min: 4 Max: 8	Min: 2 Max: 7	Min: 2 Max: 5	Min: 3 Max: 7	Min: 3 Max: 8	Min: 3 Max: 8

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	14.6	-2	14.9
Altsasu	16	-1	24.4
Aralar	10.6	-0.5	16.8
Urbasa	11	-4	20.8

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
24	30	6	14

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Ilbeltzeko bazkide zozketa

ILBELTZEKO SARIAK:

1- EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA, ARGIA ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA ETA GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA.

2- ARGIA ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA ETA GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA.

3- ARGIA ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA ETA GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA.

4- ARGIA ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA ETA GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO HARPIDETZA.

>> 11

galdera

Jose Manuel Augusto

Bricotraining-a

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Elkarrizketa osorik: [www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en).

IRRATI-KUÑAK  
IRAGARKIAK  
BANNERRAK  
KARTELAK  
ESKUORRIAK

2014 MATRIKULAZIO KANPAINA

ar@guaixe.net 948 564 275 guaixekomunikazioa.blogspot.com

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

**1. Zer da bricotraining-a?**  
Idea bat, sentsazio bat edo emozio bat eskuekin eta brikolajearen laguntzarekin eraldatzea, ikutu ahal izateko. Figura bat izan daiteke edo estruktura bat, edozer: Material eta teknika askorekin lan egiten da: egurra, burdina, buztina... Hori da bricotraining-aren oinarria.

**2. Zein da helburua?**  
Enpresetan zenbait abildadeen gabezia nabarmentzen da, baina hauek ez dira enpresaren barruan jorrotzen. Kanpora atera behar dira hauek hobetzeko, enpresan sortzen ez diren giroak sortu behar dira. Bertan talde lana, lidergoa, kreatibitatea, elkarrekin lan egitea, errendimendua, ideia berriak ateratzea, eta abar lantzen dira.

**3. Teknika berritzailea da.**  
Brikolajearekin gauzak egiten dituzenean pertsonalki betetzen zara, zuk egiten duzulako bukaera ikusiko dena. Enpresa baten barruan behar diren gaitasun guztiak aplikatzen dira brikolajearen. Orduan pentsatu nuen enpresetan lantzen diren gaitasunak hartu eta hainbat tailerretara egokitzea. Kontzeptu bat da, filosofia bat metodo ezberdin batekin. Ideiak edo sentimenduak lan egiteko orduan oso garrantzitsuak dira, eta horiek garatu behar dira.

**4. Nolakoak dira tailerrak?**  
Bost ordukoak. Jendea hodeietatik jaisteko balio dute. Eguneroko laneko abildade eta gaitasunak ez dute ezertarako balio tailer hauetan. Jendea berdintzen duzu: zuzendari orokorretik sarrerako idazkari-ra. Bi gauza eman ohi dira: jendea gauzak egitea ausartzen dela edo beldurrak azaleratzen direla. Per-

tsona psikologikoki biluztu egiten da, eta horrela berdintzen duzu. Rolak aldatzen dira. Pertsona bakoitzak leku batean jartzen dugu: lidergoa lantzen badugu jende guztia izango da lider eta normalean lider denari rola aldatzen diogu.

Bukatzeko, ondorioak jasotzen ditugu, 4 aspektutan oinarrituta: maila emozionalean sentitu dutena, elkar arteko harremanak nolakoak izan diren, rol aldatzarekin zer ikasi duten eta nola lagundu dezakeen horrek bere eguneroko lanean. Alde positiboak eta negatiboak agertzen dira. Amaitzeko, enpresan zer eta nola aldatuko luketen galdetzen zaie.

**5. Zer egin behar da bricotraining tailerra egiteko?**  
Jakin behar dugu zertarako egin nahiduen enpresa horrek bricotraining-a. Enpresak helburuak finkatu behar ditu eta helburu horiek enpresaren estrategiaren barruan dauden edo ez jakin. Ondoren zenbat pertsonak parte hartuko duten eta lan egiten duten giroa ezagutu behar dugu, haien beteharrak jakin. Eta jendea motibatuzko pelikularen gidoia egiten dugu. Oso teknika berria da. Komunikatzeko modua aldatzen ari da enpresa munduan. Giza arteko komunikazioari buruz ari naiz. Oso gai garrantzitsua da.

**6. Helburu errealetik harago dauden helburuak jartzen dizkiezu.**  
Normalean oso pertsona arrazionalak dira, emozioak ezkututzen dituztenak. Nik hori nolabait mugitu behar dut. Txipa aldatzeko pelikulak egin behar ditugu.

**7. Sektore guztietan egin daiteke bricotraining-a?**

Bai. Enpresa nahiko handiak izan behar dute, 25 eta 50 langile bitartekoak, ekoizpen handikoak eta konpartimentu mugitu ezinak dituztenak: ekoizpena, administrazioa, komertzializazioa, diseinua... eta haien artean ez dago komunikaziorik. Gure tailerretan helburu guztiak bateratu behar dira, eta komunikazioa landu ondoren kontratzen dira elkar komunikatzen bagara, arazoa guztiona dela.

**8. Beraz, lankideak lagunak bihurtzen ditu bricotraining-ak.**  
Azken finean taldea egin behar da, erakunde sortu. Jendea erakundearen parte izateagatik harrosentitu behar da. Hori da helburua. Proiektu batean languztiak ez dute erantzukizun maila berdina, baina guztiak dira garrantzitsuak.

**9. Zer onura lortzen ditu enpresak?**  
Pertsonen alderdiak garatu nahi duten enpresendako egin dago hau. Erakundearen atzean pertsonak daude eta pertsonetan arreta ez bada jartzen, porrot egingo du enpresak.

**10. Proiektuak arrakasta izan du?**  
Probak egiten ari gara, enpresaren barruan zer nolako erreakzioak ematen diren testatzen. Plan Modernaren zigilua lortu dut. Planari esker cluster deitutako enpresa, erakunde edo instituzioetan parte hartzeko aukera ematen didate.

**11. Batuta-koekin egon zinen.**  
Esperientzia oso pozgarria. Enpresa bat sortzen ari denean, eta prozesuan hainbat pertsonak parte hartzen dutenean, oso zaila da rolak definitzea. Tailerretan euren artean nola antolatatu landu genuen.